

# Euskara Araban

**Koldo Zuazo**  
**EHUko irakaslea**

Araba da euskal herrialderik erdaldunena eta bere erdalduntze bilakaeraren berri ematea da txosten honen helburua. Gaur egun beste norabidean, euskalduntze bidean, egiten ari diren urratsez ere aipatzen da zer edo zer. Txostenaren bigarren zatian, berriz, Araban hitz egiten zen euskara nolakoa zen erakusten da eta, eskuartean dauzkagun lekukotasunak kontuan izanda, Arabako hori, Bizkaiko eta Deba arroko hizkerekina batera, “mendebala” dei litekeen hizkuntz eremuan sartzea proposatzen da.

Within the Basque Provinces, Araba is the most Spanish-spoken one, and the aim of this report is precisely to explain the process by which Araba has acquired a Spanish flavour. The steps taken nowadays in the opposite direction, the way for becoming Basque, are also somehow mentioned. The second part of the article goes on to show how the Basque language spoken in Araba is. Finally, the report concludes with a proposition to consider the Basque language of Araba a “west-side language”, together with the ones of Biscay and the basin of the river Deba.

## 1. Sarrera\*

Gutxi da Arabako euskararen bilakaeraz dakiguna eta hau ere ez da, gainera, gai hori sakon eta zabal aztertzeko leku egokia. Ezaugarri hauek biok kontuan izanda, bilakaera horren mugarrak batzuk, nire ustez esanguratsuenak direnak, aipatuko ditut soil-soilik<sup>1</sup>.

## 2. Abiaturuak

Sarri aipatu da 1025. urteko Arabako herrien zerrendak daukan balioaren handia. Errioxako Donemiliaga Kukulako monastegiari zergak ordaintzen zizkieten Arabako herriak azaltzen dira bertan eta batez ere toponimo horiek euskararen iragana ezagutzeko daukaten balioagatik nabarmendu izan da delako zerrenda. Baina horregatik ezezik, alderdi soziolinguistikotik ikusita ere bada nabarmendu beharrekoa<sup>2</sup>. Toponimo-zerrendari begiratze hutsak erakusten duenez, eremu bi nabari dira Araban. Eremuetako batean, zabalean, toponimia euskalduna da nagusi. Bestean, ostera, erdalduna azaltzen da gailen.

Garai hartan Ossingani eta Alfoce de Fornello deitzen ziren eskualdeak daude eremu erdaldunean, hau da, Arabako hegomendebala, gaur egun Koartango-Iruña-Trebiño lerrotik hegomendebalerara dagoen lur-eremua. Jatorri erdaldunekoa da bertako toponimia gehiena: *Basconguelas*, *Castellu*, *Molinilla*, *Moscatuero*, *Padul*, *Torreziella*... bezalako herri-izenak daude Ossinganin eta *Billaluenga*,

*Forniello*, *Manzanos*, *Quintaniella*, *Ripavellosa*... bezalakoak Alfoce de Fornellon. Toponimia erdalduna izateak bertako bizilagunak —edo bizilagunen multzo bat bederen— orduko erdaldunduta edo, behinik behin, erdalduntze bidean izan zitezkeela salatzen du. Dena dela, Arabako alderdi honetan euskara oso goiz galdu zela esan dezakegu inolako zalantzarik gabe.

## 3. XI. mendetik XVII.era

Aldaketa larriak gertatu ziren Erdi Aroko azken mendeetan Europako mendebalean. Feudalismoaren gainbehera eta burgesiaren gorakada da aldaketa horietarik lehena, jaun feudalen esku zeuden lur-eremu txikiak monarkia indartsuen mende biltzeko ahalegina da bigarrena eta kultura alorrean sumatu ziren joera berriak —Errenazimendua eta Humanismoa— da hirugarrena. Erdi Aroaren hondarretan sendotuz joan ziren aldaketa horiei laugarren bat gehitu zitzaion XVI. mendean: erlijioaren alorra ezezik gizarte-egituraren osterantzeko guztiak ere astindu zituen Erreforma protestantea.

Aldaketa hauek ondorio zuzena izan zuten hizkuntzen bilakabidean. Latina zen artean Europa mendebaleko hizkuntza nagusia, benetako “hizkuntza” bakarra, eta haren menpe zeuden gainerakoak, “hizkuntza arrunt” (*sermo vulgaris*) deituak eta deitura horren bidez zeharo gutietsiak. Behin XVI. mendeaz gero, baina, latinaren nagusitasuna izan zen gutitzen joan zena eta nazioarteko harremanetara mugatu zen gehienbat beraren erabilera. Mo-

\*. UEUK Gasteizen antolatutako VII. jardunaldietan (1995) aurkeztutako txostena da hau. Nire esker ona gonbidatu ninduten antolatzaileei eta bertaratu ziren entzuleei.

1. Euskarak Araban izan duen bilakaeraz Apraiz 1976, Intxausti 1994 eta Sasia 1976, 1981 ikus daitezke.

2. Mitxelenaren *Textos arcaicos vascos* liburuan ikus daiteke toponimo-zerrenda hori.

narkia eraiki berrietan bertako hizkuntzak hobetsi ziren euren esparru barruko zereginetarako eta Erreforma protestanteak ere “hizkuntza arruntei” eman zien erabateko lehentasuna. Kulturagune nagusi abatetxe eta monasterioak barik Erdi Aroan sortutako unibertsitateak izateak ere ekarri zuen hizkuntzen baitara aldaketarik, latina-rekin batera hizkuntza nazionalak erabili zirelako eurretan. Gertakari hauek guztiok goitik behera aldatu zuten “hizkuntza arrunten” izana (=statusa) eta izanarekin batera baita izena bera ere, “hizkuntza arrunt” barik “hizkuntza nazional” deitu zirelako harrezkero.

Hizkuntza alorreko aldaketok Ipar Euskal Herrian oihartzun zabala izan zuten arren, zipristin apur batzuek bai-zik ez zuten Hegoaldea busti<sup>3</sup>. Izan ere, guztiz bestelakoa zen Ipar eta Hego euskal herrietako egoera. Europa mendebalean barrena garatzen eta gauzatzen ari ziren proiektu nazional haien antzekorik ez zen Hegoaldean nabari. Arabari dagokionez, esate baterako, 1332an burutu zen Gaztelako koroari hurbiltzeko bilakaera. Gaztelari begira, eta haren zerbitzura, zegoen Arabako burgesia. Oñatiko Unibertsitatea (1540an sortua) alde batera utzita<sup>4</sup>, Errenazimentuaren eragina ez zen Hego Euskal Herrian txertatu eta Erreforma protestanteak ere ez zuen Frantzia eta Espainiaren arteko muga zulatu. Aitzitik, Kontraerreforma katolikoa

indartu zen alderdi honetan eta euskaldun bat, Inazio Loiolakoa, izan zen gainera Kontraerreformaren bultzatzailerik ezagunenetakoa.

Agerian gelditu ziren egoera honen ondorioak hizkuntzen nondik-norakoan: atzera egin zuen euskarak eta aurrera gaztelaniak. Arabaz den bezainbatean, badirudi Gasteizen bertan, burgesia azkarren zegoen lekuan, azaltzen zela ahulen euskara. Halaxe zioen 1528an Gasteiza etorri zen Andrea Navagiero italiarrak:

parlano in Vittoria Castigliano, ma intendeno ancho Basuenze, & delle ville il più parla Biscaino (Santoyo 1972: 221).

Arabian arrunta zela euskara eta Gasteizen ere ulertzen zela ikusi zuen Navagierok; baina euskararenak egina zuen orduko Araban, gaztelania zelako hiriburuko hizkuntza nagusia. Antzeko egoera sumatu zuen 1572an Gasteiza etorritako beste italiar batek, Giovanni Battista Venturinok. Oso ñabardura esanguratsua erantsi zuen, gainera, honek: herri xehea euskaraz mintzo zen bitartean, gaztelaniaz ziharduela nobleziak. Bere hitzetan esateko:

E Vittoria capo di Alava, vicina à Vipusca et à Biscaglia (...), et si vede che le persone plebee in essa parlano Biscaino ò Bascongado, come dicono, che é difficiliss(im)a lingua d'apprendere, se

---

3. Aldera bedi Iparraldeko literatura aberatsa (Leizarraga, Axular, Etxeberri Ziburukoa, Oihenart...) Hegoaldeko kaskarrarekin (Betolatz, Beriain, Kapanaga...); aldera bedi Iparraldekoengan euskara orokor bat egituratzeko nabari zen ahalegina (Leizarraga) Hegoaldekoek nork bere herritxokoa erabiltzeko zuten joerarekin; aldera bedi Iparraldeko euskara landua Hegoaldeko zabar eta mordolloarekin; aldera bedi Iparraldean egin zen euskararen benetako apologia (Etxepare) Hegoaldeko sasiapologiekin (Garibai, Poza, Etxabe)... eta ezinezkoa gertatzen da edozein alderatze ahalegin. Mikoletaren ikasbidea eta bizpahiru errefrau-bilduma dira Hego Euskal Herria busti zuten zipristin errenazentista apurrak.

4. Gogora dezagun, dena dela, batez ere pertsona bakar baten —Rodrigo Mercado de Zuazola apezpiku oñatiarra— ahaleginaren ondorioz eraiki zela unibertsitate hori, ez bertoko agintariak eta erakundeek bultzatuta eta babestuta. Babesik ezaren ondorio izan zen, jakina, bere ibilbide laburra eta abiadura motela.

bene li nobili parlano chiaramente Castigliano (Santoyo 1972: 230).

Arabako elebitasuna nabarmendu zen 1612ko beste liburu anonimo batean:

Vittoria est une belle petite ville, la capital du pays dit Alava (...). Ce pays a plus de 500 villages en bon pays et fertile et là on commence a parler basque, qu'ils appellent Bascuence et Bascongada, et les peuples le parlent egallement avecq l'espagnol (Santoyo 1972: 232).

Gasteizen ezezik Araba osoan ere hedatuz zihoan gaztelania. Hedatuz eta esparrurik esanguratsuenetan sartuz. 1682an erabaki zen Arabako Batzar Nagusietan ordezkari izateko nahitaez gaztelaniaz jakin beharra. Endrike Knörrek (1994) argitaratu berri du agiri hori:

En esta Junta, habiendo reconocido que el procurador que vino por la Hermandad de Arciniega no sabía romance, ni entendía lo que dichos señores resolvían y decretaron, consideraron los inconvenientes que de no entender se pueden originar a su Hermandad, pues no se puede dar su voz y voto a los negocios que se tratan en esta dicha Junta. Decretaron que de aquí en adelante los procuradores que vinieren de cada Hermandad sean personas de las más idóneas y capaces para que puedan dar su sano voto y parecer en todos los casos que se puedan ofrecer en sus Juntas, y que si así no le hicieren sea multada la Hermandad que le enviare en cinco mil maravedís y el procurador que viniere que no supiere romance en otros cinco mil maravedís, y mandaron que nos, los secretarios, notifiquemos dicho decreto a todos los señores para que lo hagan saber a todas sus Hermandades, y luego (...) don Antonio González de Zuazo y Mújica, procurador de la Hermandad de

Aramayona, protestó el dicho decreto, y dichos señores, sin embargo de dicha protesta, mandaron se ejecute de aquí adelante, y demás de dicha pena sean echados de la Junta los procuradores que vinieren y no supieren romance.

Erabakiaren aurka Aramaioko ordezkaria bakar antzean agertu izanak euskarak Araban zeukan babes urria erakusten du ez bairik gabe: ordutik aurrera isuna ordainarazteaz gainera, bere herrialdeko Batzarretik egotzi egin ahalko zuten gaztelaniaz ez zekien arabarra. Herrialde honetako gizarte-sailik esanguratsuenetan (noblezia, burgesia eta hiritarrak oro har) eta gizarteko esparrurik esanguratsuenetan (administrazioa, auzitegiak...) gaztelania nagusi izanak erabat mugatu zuen bertako euskararen geroa. Europako beste herri batzuetan latina baztertu eta nork bere herriko hizkuntza bultzatzen eta babesten ziharduen bitartean, Hego Euskal Herrian euskara bertan behera utzi eta gaztelania izan zen latinaren lekua bete zuena.

Euskara arautzeko eta egokitzeko saiorik ere ez zen ia egin. Beste herri batzuetan –Ipar Euskal Herria barne– gramatikak eta hiztegiak atontzen eta literatura lantzen ari zen bitartean, Gaztelara edo Ameriketara joan ahal izateko edota hangoekin hartu-emanetan jardun ahal izateko adina gaztelania ikastea zen Hegoaldean helburu. Arabari dagokionez, Betolatzak 1596an gaztelaniatik itzultitako dotrina labur bat –hamasei orrialde guztira– da euskaraz egindako saio ezagun bakarra eta hau berau ere Trentoko Kontzilioko erabakiak beteaz, Kalahorrako Apezpikua-ren aginduz egin zen. Agindu hori ez izatera, jakin ez Betolatzak bere kabuz ezer egingo ote zuenez.

Gasteizen jasotakoa izan daitekeen hiztegi bat ere bada, baina italiar bat,

Nicolao Landuchio, izan zen hiztegiaren benetako egilea. Landuchiok gaztelaniaz emandako hitzei euskarazko ordainak jarri besterik ez zuten egin euskaldunek. 1562ko hiztegi honetan bete-betean egiaztatzen da beste italiar biek, Navagierok eta Venturinok, esandakoa: XVI. mendean euskara galbidean zegoela Gasteizen. Egoera horixe islatzen du Landuchioren hiztegiak: gaztelaniaren eragina barru-barruraino sartuta daukan hizkuntza, zeharo higatuta dagoen euskara, agertzen da bertan. Adibide banaka bat jarriko dut diodanaren sendogarri:

aguila, ave:	<i>aguilea</i>
apedrear:	<i>apedreadu</i>
apretar:	<i>apretadu</i>
ardor, calor:	<i>ardorea, calorea</i>
bellota:	<i>bellotea</i>
bofetada:	<i>bofetadea</i>
buho:	<i>vuhoa</i>
crudeza:	<i>crudezea</i>
cuerda:	<i>cuerdea</i>
chillido:	<i>chillidoa</i>
daño:	<i>dañua</i>
desconocido:	<i>desconocidua</i>
deshazer:	<i>deshazidu</i>
desverguença:	<i>desverguença</i>
deudor:	<i>deudorea</i>
dolor:	<i>dolorea</i>
dureza:	<i>durezea</i>
enflaquecer:	<i>enflaqueçidu</i>
entrañas:	<i>entrañac</i>
espantar:	<i>espantadu</i>
...	...

Baliteke arabarra izana 1610ean Iruñean poesia-sari bat irabazi zuen Martin Portal ere. Saritutako poesia horixe da haren bizitzaz daukagun albiste bakarra, baina bere hizkerak arabarra edo Araba ondoko nafarra zela –Ameskoakoa edo Lanakoa, beharbada– salatzen du. Eta dakigunez behinik behin, hauxe da Araban euskara arautze, edertze eta normalizatze bidean Errenazimentu garaian egin zen ibilbide gutzia.

#### 4. XVIII-XIX. mendeak

XVIII. mende erdialdekoak dira euskara suspertzeko lehen ahaleginak Hego Euskal Herrian. Gipuzkoan egon zen sorburua eta batez ere jesuitak izan ziren bultzatzaile nagusiak (gogora bedi Larramendi-Kardaberaz-Mendiburu hirukotea). Ordukoak dira euskara arautzeko lehenengo saioak (gogora bitez Larramendiren gramatika [1729] eta hiztegia [1745]) eta ordukoak euskara artean baztertuta zegoen zenbait esparrutara zabaltzeko ahaleginak (gogora bitez Larramendik euskalgaiztoz edo gaztelania hutsez mintzo ziren elizgizonei egin zizkien salaketak).

Gipuzkoan sortutako kezka laster hedatu zen Bizkaira eta behin XIX. mende-hasierarako Mogeldarrak edo Astarloatarrak bezalako ordezkari ezagunak nabarmendu ziren herrialde honetan. Arabar jatorriko hiru izen ere erantsi zitzaizkion euskara suspertzeko ahaleginari: Pedro Inazio Barrutia Aramaiokoa (1682-1759) eta Juan Bautista Gamiz Sabandokoa (1696-1773) XVIII. mendean eta Jose Pablo Ulibarri Okondokoa (1775-1847) XIX.ean. Denetara ere izen gutxi, gutxi baitzen Araban euskararen alde izan zitekeena.

Gutxi horiek ere, gainera, jatorriz arabarrak izan arren, Arabatik kanpo eman zituzten euren bizitzako urterik gehienak: Arrasaten Barrutiak, Iruñean –eta jesuiten artean– Gamizek eta Bilbon Ulibarrik. Beraz, Arabatik kanpo sortu zitzaien euskararen aldeko nolabaiteko atxikimendua. Eta “nolabaiteko” atxikimendua diot, dakigunez antzerkilan soil bat baizik egin ez zuelako Barrutiak eta bertso multzo txiki bat baizik ondu ez zuelako Gamizek. Bestelakoa izan zen Ulibarriren jarrera, euskara irakaskuntzan eta erakunde

publikoetan sartu beharra, euskararen akademia sortu beharra, euskararendako babes politikoa lortu beharra... aldarrikatu zituelako honek. Baita gaur egun gutariko norbaitek beharbada "Fernandoren egia" iritziko dion beste hau ere: euskaldunak euskaldunari euskaraz hitz egin behar diola.

Dena dela, ba omen zen XVIII. mendean euskararen egoeraz eta geroaz kezkatutako beste arabarrik; Agustín Kardaberazek (1761: 17-18) aipatu zuen militarra esate baterako:

Araban nembillen batean, ango adisquide ta Erregueren Guardietaco capitan baliente batec beñ esan cidan: Aita, nola Euscalerrietan umeen aciera ona ta bear dan dotrinaric izango da baldin eusquera ondatceco aleguñ guciac eguiten badira ta gure mutilcho edo aurrai bildur ta azoteaquin eusqueraz itzeguitea eragozten bazaie? Oiec berac, guero, edo eleizaguizon edo echajaunac izan bear dute. Eta guraso edo curac diranean, nola ongui premia dan bezala, beren eche edo ergoienetan (erri chiquiai onela Araban deitzen diete) dotrina eracatsi ta confesatuco dute? Nola beren familietaco artu emanac ta beste bear diran gauzac ondo aditu ta zucenduco dituzte?

Kezka militar horrek edo, beharbada, Kardaberazek berak jaulkia izan, kontua da XVIII. mendearen erdialdera euskarak ez zuela lekurik Arabako irakaskuntzan. Eta lekurik ez izateaz gainera, zigortu ere egiten zuten –zorioneko eraztuna ezarri– euskaraz mintzo zena. Zigor horiek jasan eta salatu zituen XVIII. mende-azkenaldera jaio zen Pablo Mendibil (1788-1832) dulantziarrak:

Que mi lengua es la bascongada, y para obligarme a que la olvide como si fuera incompatible con aprender i saber la castellana, me condenan a recibir el maldito anillo si se me escapa una sola

palabra de las que mamé con la leche, aunque diga *ama* en lugar de *madre*, o pronuncie *Jaungoicoa* en lugar de *Dios*, queriendo invocar su santo nombre. El anillo de mis pecados acierta a hallarse en mi poder. ¡Crimen peor que de lesa autoridad majisterial! ¡Sotana solemnísimal!

¿I si no aparece el anillo? ¿Si para evitar ese paso se oculta o de una vez se hace pedazos i nadie lo saca? En tal caso ¡ai del último que lo tuvo! El es responsable ¿I si nadie lo tuvo i lo dió el señor maestro? Todos serán azotados. ¡Cómo todos! ¿I quién los toma a cuestras? Los señalados ¿Qué funcionarios son esos? Cuatro o seis condiscípulos, escojidos entre los más robustos i mal intencionados, que son tenidos por intanjibles, sólo porque hazen ofizio de verdugos para arrojarce como perros de presa sobre el infeliz condenado a azotaina, sujetarle, desembragarle i llevarle delante de la poltrona del señor maestro, poeniéndolo descubierto i bien a tiro para que no yerre el golpe de la crujiente disciplina (Garate 1972: 174).

Gaztelania zen, beraz, irakaskuntzan ere nagusi. Baina gizarteko esparru esanguratsuenetan ezezik, mintzaten zen lur-eremuan ere atzera egin zuen euskarak garai honetan Araban. 1787 inguruko egoera azaltzen da Jose Migel Barandiaranek (1926: 465) aurkitutako agiri baten:

Hablan el idioma bascongado muchos pueblos de la Vicaría de Vitoria, todos los de Gamboa, los más de la de Salvatierra, los de la de Mondragón, Cigoitia, Zuya, Orduña, Ayala, Orozco y Tudela, en los cuales a lo menos serían inútiles los Curas de concurso abierto, que ignorasen este idioma.

Beraz, XVIII. mende-hondarrean bitan banatuta ageri zaigu Araba: euskalduna da iparraldeko erdia eta erdalduna hegoaldekoa. Hegoaldetik Trebiño-Bernedo inguruetaraino iristen



zen euskararen eremua. Mendebale-  
tik, berriz, eremu horren barruan zeu-  
den Artziniega, Aiara eta Urduña. Baina  
garai bereko beste lekuko baten ara-  
bera, Bizkai-Gipuzkoetatik gertuko  
herrietan baizik ez zegoen sendo eta  
osasun onez. Gainontzekoetan etenda  
omen zegoen gurasoengandik seme-  
-alabenganako euskararen lotura. Hala-  
xe zioen Landazuri historialariak 1798-  
an argitara emandako saio ezagunean:

Consta que la época de la pérdida  
del bascuence és en el presente siglo y  
de pocos años á esta parte por lo  
respectivo á las hermandades de la  
llanada de Alava en que ha faltado ya  
su uso, y en que constantemente se ha  
hablado, pues testifican las personas de  
alguna edad haber sido corriente y  
freqüente su uso en hermandades en  
que hoy nada se habla.

Aun es mas urgente la prueba que  
están dando otras hermandades en que  
se va extinguiendo el bascuence, pues  
los viejos hablan este idioma y sus hijos  
no lo entienden, ó saben de él algo mas  
que nada. Sin embargo de la grande  
pérdida que ha tenido el bascuence en  
Alava se conserva aun todavía en ella  
en veinte y dos hermandades, y con  
todo vigor y fortaleza permanece en las  
inmediatas al Señorío de Vizcaya y  
Provincia de Guypuzcoa, pues en las  
distantes va continuando la corrupción  
(Landazuri 1926: 153-154).

Garai honetakoxea da (1805-1812  
bitartekoa) euskararen eremua zehaz-  
te aldera abian jarri zen lehenbiziko  
ikerketa ezaguna. Frantziar batek,  
Eugène Coquebert de Montbret-ek,  
zuzendu zuen eta Beñat Oihartzabalek  
(1992a, 1992b, 1994) eman du oraindik  
orain argitara. 1807an Gasteizen, Do-  
nostian eta Bilbon jasotako argibideen  
arabera, euskararen eremu barruan  
zeuden Arabako Asparren, Agurain,  
Iruraitz-Gauna, Barrundia, Arratzu-  
Ubarrundia, Gasteiz, Zuia, Amurrio,

Urduña, Aiara, Artziniega eta Okondo  
(Oihartzabal 1994: 245 hh). Manuel de  
Llano merkataria gasteiztarrak zioenez,  
gainera, hiriburuan bertan ere ez ei-  
zen zeharo arrotza euskara, gaztelania  
izanagatik hizkuntza nagusia.

Barandiaranek argitara emandako  
1787ko agirian eta Landazuriren libu-  
ruan erakutsi ziren albisteekin batera  
samar datoz, beraz, Coquebert de  
Montbret-ek jaso zituenak. Badirudi,  
bestalde, erabatekoegia izan zela  
1801ean Euskal Herrira etorritako  
Humboldt hizkuntzalari germaniarrak  
Gasteizko hizkuntza egoeraz egindako  
baieztapena: «En muchos de sus distri-  
tos, principalmente en Vitoria, ya no se  
habla más vascuence» (Humboldt  
1975: 92). Baliteke zenbait esparrutan  
-familiar eta lagunartean, beharbada-  
euskarak bizirik iraun izana, Gasteizko  
bertako semea zen Manuel de Llanok  
esandakoa aintzakotzat hartzen bada  
behinik behin.

## 5. 1876 ondorengo hamarkadak

II. Gerra karlistaren ondoren ia  
gutziz desegin zen Hego Euskal Herriko  
foru-egitura. Aldi berean, izugarri azkar-  
tu zen industria, Bilbo-inguruetan eta  
Ibaizabalen ezker aldean batez ere.  
Foru-egitura desegiteak euskal nazio-  
nalismoaren sorrera ekarri zuen (gogo-  
ra bedi 1895ean azaldu zela EAJ) eta  
industria azkarren zegoen gunean,  
Bizkaiko hiriburuan, indartu zen na-  
zionalismo hori. Euskara suspertzeko  
gogoa ere piztu zen giro horren zu-  
rrunbiloan eta gogo hori ere Bilbon na-  
barmendu zen beste inon baino biziago.

Lehenbiziko aldizkari elebidunak eta  
are euskara hutsezkoak sortu izana  
(gogora bitez Azkuek plazaratutako  
*Euskalzale* eta *Ibaizabala*), euskal lite-

raturak sail guztietan (are hain ezagunak ez zirenetan: teatroa, opera, kazeritaritza bera...) egin zuen gorakada, euskara arautzeko egin ziren saio ugariak (gramatikagintzan, hiztegin-tzan eta hizkuntzalaritzako beste hainbat arlotan) eta, jakina, euskara artean baztertuta zegoen esparruetara zabaldu nahia dira horren adibide. Ordukoxeak dira, esate baterako, zenbait lanbide betetzeko euskaraz jakin beharreko eskabideak, ordukoxeak Bilboko Irakasle Eskolan zein bertako Institutuan sortutako euskara katedrak, ordukoxea, azken batean, Bilbon bertan euskara nola edo hala aintzakotzat hartzea.

Antzeko giroa nabari zen Donostian, eta Iruñean bertan ere sumatu zen nolabaiteko susperraldia. Araba gelditu zen atzera berriro azken. Izan zen han ere euskaltzale taldetxo bat eta, gai-nontzeko hiriburuetan bezala, aldizkari bat sortu zuen talde horrek, *Revista de las Provincias Euskaras* deitu zena eta zuzendari Fermín Herrán izan zuena. Aldizkaria 1878an agertu zen eta handik urtebetegarrenera desagertu. Bere bizitza laburrak ezin argiago erakusten du aldizkariak zeukan oinarri ahula: bitarteko gutxi eta irakurle / idazle sare urria. Bazen Araban euskaltzale adoretu eta langile zaildurik, baina norbanako horiek ez zuten, nonbait, sare trinko eta zabala eraikitzeko lain indarrik. Hutsa izan zen, bestalde, aldizkari honek euskarari egin zion ekarpena, gaztelania izan zelako aukeratu zuen adierazpidea.

Egoera bera errepikatu zen Pizkunde garaian. Euskara eta euskal kultura suspertzeko ahalegina bizi-bizi azaldu zen Bizkaian eta batez ere Gipuzkoan, baina oso motel Araban. 1928an Eusko Ikaskuntzaren baitan sortutako "Barraibar Elkarte" izan zen gertakaririk

esanguratsuena. Eusko Ikaskuntzaren agerkarian (38. zb. [1928], 10. or.) irakur daitekeenez, hiru ziren elkarte honen xede nagusiak:

a. Arabako herri euskaldun apurretan euskara bizirik iraunaraztea.

b. Arabako erdaldunak berreuskalduntzen ahalegintzea. Euskara haurrengan txertatzen (kantu, jolas eta sariaketen bidez batik bat) eta adinekoentzat euskarazko eskolak antolatzen jardun zuten hori lortzearren.

c. Euskara eta euskalduntasuna suspertzeko ekintzak oro har abian jartzea. Haur zein nagusiendako jaialdiak antolatu ziren honetarako.

Euskararen eremuak berak ere atzera egin zuen berriro XIX. mendeko lehen erdian. Hori egiaztatzen duten hiru lekuko dauzkagu. Alde batetik, Louis-Lucien Bonaparteren (1863) eta Paul Brocaren mapak (1874-75) eta, bestetik, Ladislao de Velascok argitaratutako liburua (1879), hirurak 1850-70eko hamarkadetan jasotako argibideekin osatutakoak.

Bonaparteren arabera (ikus Zuazo 1991: 19-21), euskaldunak ziren Laudio, Legutiano eta Aramaio. Okondoko auzo batean –Okondogoiengan– baizik ez zen euskaraz hitz egiten eta, Aiarari dagokionez, Luiaondo zen euskarari nola edo hala eusten zion herri bakarra. Amurrión, berriz, euskalduna zen Baranbio eta etenda zegoen gurasoengandik seme-alabenganako euskararen lotura Astobitzan, Lezaman eta Larrinben. Zigoitia gehienak euskaldun zirauen, baina gaztelaniaren aldeko joera nabari zen Berrikaon eta Buruagan eta joera hori burututa zegoen hegoaldeko herrietan, Apodaka, Etxabarri-Ibina, Letona, Mendaroz-



keta eta Zaitegin. Arratzu-Ubarrundiaz den bezainbatean, Betolatza, Ziriano eta Luku baizik ez ziren euskaldun, erdalduntze bidean zeuden Uribarri Ganboa, Langara Ganboa eta Landa eta erdaldunduta gainontzeko herriak. Barrundian, azkenik, Marieta-Larrintzar eta Elgea ziren euskaldun, erdalduntze bidean zeuden Zuhatzola, Ozeta, Hermua eta Larrea eta erdaldunduta gainontzekoak.

Zabalagoa da Brocak –eta orobat Velascok (1879: 487)– ezarri zuen eremua, Okondo osoa, Urduña, Urkabustaitz (Untzaga-Abezia-Belauntza lerroraino), Zuia (Aperregi-Domaikia lerroraino), Gasteiz (Uribarri Ibina-Gamarra-Uribarri Arratzu lerroraino), Donemiliaga (Mezkia) eta Asparren (Albeiz-Egino lerroraino) hedatu zituelako euskararen eremuaren ertzak.

Aldeak alde, baliteke hirurek arrazoia izatea. Erabilitako irizpideetan egon daiteke gakoa: herri jakin baten euskaraz hitz egiteko gai zen inor ba ote zegoen (Broca eta Velascoren irizpidea beharbada) edo herri horretan euskara eguneroko jardunean ohiko hizkuntza ote zen ala ez (Bonaparteren irizpidea beharbada). Bonapartek, dakigunez, oso kontuan izan zuen alderdi soziolinguistikoa. Euskara osasun onez edo makal antzean zegoen guneak ondo bereizten ahalegindu zen bere mapan; kolore argiagoak edo ilunagoak erabiliz batzuetan edota osterantzeko baliabideren bat erabiliz besteetan. Horregatik, eta euskararen eremua zuzen ezartzearen izan zuen arretagatik, Bonaparteren mapak dirudi denetan lekukorik ziurrena.

## 6. Etorkizunari begira

Euskarak eta euskal kulturak iragan garaietan Araban bildu duten uzta ez

dela izan oso oparoa erakutsi dut orain arteko kontakizunean. Ostera, badirudi emankorrago bilakatu dela Arabako lurra eta etekin hobea espero da ondorengo uztaroetan. Hona hemen itxaropen hori izateko dauden zenbait arrazoi.

Arabako industriak gorakada handia egin du 1950etik hona; 1960-70 hamarkadan batez ere. Euskal Autonomia Erkidegoaren hiriburua Gasteizen ezarri izanak eta zenbait unibertsitate-fakultate bertan zabaldu izanak ere izan du bere eragina. Honenbestez, nekazaritzari lotutako eta kultura dinamika apaleko gizarte kontserbatzailea izate-tik gaurrengungo gizarte aurreratuen mailan jartzearren urrats handiak ematen ari dira herrialde honetan.

Demografian ere islatu dira honen guztionen ondorioak. Eusko Jaurlaritzaren (1989: 17) datuen arabera, haxe da Arabako bizilagun-kopuruak 1950-1986 bitartean egin duen bilakaera:

1950	1960	1970	1975	1981	1986
114.139	133.742	199.777	237.473	257.850	267.780

Badira, dena dela, kontuan hartu beharreko hiru gertakari. Hasteko, ez da hazkunde orekatua izan: Aiara eta Gasteiz –eta Arabako Lautada oro har– izan dira industrializazioaren ardatz biak. Araba errioxarrean ere nabaritu da susperraldi txiki bat, baina gainerako eskualdeek hustu edo lehengoan iraun dute.

Arabaren ere, bigarrenik, hazkunde moteldu egin da behin 1980ko hamarkadaz gero, nahiz eta bizilagun-kopuruak behera ere egin ez duen. Araba da hain zuzen ere, Lapurdiren ondoren eta Nafarroaren aurretik, 1981-1991 hamarkadan behera egin ez duen hiru

euskal herrialdeetako bat: 1981ean 257.850 bizilagun izatetik 272.447 izatera iritsi zen 1991n.

	1981	%	1986	%	1991	%
Eusk.	9.693	3,9	17.424	6,7	22.995	8,6
la-eusk	23.797	9,5	43.997	16,8	53.581	20,0

Bat-batean gertatu den hazkunde honek (%124an egin zuen gora 1960-1975 bitartean), hirugarrenik, arazoak sor ditzake eta sortu ere egin ditu dagoeneko. Eusko Jaurlaritzak (1995: 49) argitaratu berri dituen emaitzen arabera, %39koa da Arabako inmi-grante-kopurua. Araban bertan jaiota-koen artean ere %15ak kanpotarra dauka gurasoetako bat eta %9-k guraso biak dauzka kanpotarrak. Hau guztiau dela eta, hazia da (%17) bere burua euskal herritartzat ez daukaten Arabako bizilagunen kopurua, baina hazia da (%70), era berean, bere burua euskal herritartzat jotzen dutenena (Eusko Jaurlaritza 1995: 52).

Hizkuntzari zuzen-zuzenean baga-gozkio, berriz, oso txikia da (%2,73) euskara lehen hizkuntzatat daukaten arabarren kopurua eta oso txikia (%1,57) elebidunena ere (Eusko Jaurlaritza 1989: 41).

Arazoak arazo eta zailtasunak zailtasun, aurrerakada galanta egin da azken hamarkadetan euskalduntze bidean. 1991koak dira eskuartean dauzkagun daturik berrienak eta, horien arabera, 22.995 dira Arabako euskaldunak eta 53.581, berriz, euren burua "ia euskalduntzat" jotzen dutenak, hau da, nola edo hala euskara ulertu bai, baina hitz egiteko gauza ez direnak. Datuon benetako balioaz jabetuko bagara, baina, 1981-1986-1991 urteetako emaitzak bata bestearekin alderatzea eta bilakaera zein izan ote den ikustea da hoberena (Agirre 1994: 17):

Bilakaera honek erakusten duenez, hamar urteko epean bikoiztu egin dira bai euskaldunen eta bai "ia euskaldunen" kopuruak: %146,15ekoa izan da euskaldunen portzentaiaren gorakada eta %103,15ekoa "ia euskaldunena".

Euskalduntze-bilakaerarik azkarrena herri hazietan gertatu dela ikustek ere izan dezake gerora begira bere eragin positiboa. Arabako euskaldunetarik gehienak Gasteizen bertan bizi dira: 15.188 hitzun 1991n. Aiaran ere gorakada nabarmena egin da: 1.443 hitzun 1981ean eta 4.258, berriz, 1991n. Bereziki esanguratsua deritzot Araba errioxarreko euskaldun-kopuruari: 662 zeuden 1991n eta 80 baizik ez 1981ean. Esanguratsua bai hamar urteko epe laburrean egin duen jauzi-gatik eta baita jauzi hori erabat eta aspaldi erdaldundutako eskualdean gertatu delako ere.

Badira, hain zuzen, euskalduntze-bilakaera benetan azkarra egiten diharduten herri arabarrak, Eusko Jaurlaritzako adituek "euskararen berreskurapen bizia" deitu ohi dutena. Hona hemen zenbaki batzuk (Eusko Jaurlaritza 1989: 123):

Udalerrria / Eskualdea	Euskaldunen kopurua <sup>5</sup>
Koartango	%17,27
Arratzu-Ubarrundia	%33,84
Barrundia	%24,52
Dulantzi	%21,36
Bastida	%22,10
Lantziego	%29,26
La Puebla de Labarka	%42,09
Legutiano	%32,03
Laudio	%14,79

5. 3-17 urte bitarteko hitzunak baizik ez ditut hartu kontuan. Hitzunak zenbat eta adin handiagokoak izan orduan eta apalagoa da, jakina, euskaldunen kopurua Arabako herriotan.

Nabarmendu beharrekoa da La Puebla de Labarkako gazteriaren artean dagoen euskaldun-portzentaia hazia. Araba errioxarreko herri hone-tan ez dago 65 urtetik gorako euskal-dun bat bera ere eta 45-65 urte bitar-tekoen artean ere %1,28 da soil-soilik euskalduna. Nabarmentzekoa, aldi be-rean, eskualde bereko beste herri bita-ko –Bastida eta Lantziogo– kopuru garaiak.

Gorakada handia –ikusgarria ere bai zenbait lekutan– egin du, beraz, eus-karaz dakitenen kopuruak Araban. Bai-na euskaraz dakitenenak ezezik, eus-kara eguneroko jardunean darabilte-nenak ere gora egin du. Hala ere, apu-rra da oraindik Arabako bazterretan entzun daitekeen euskara; EKBk egin dituen neurtze-saioen arabera Euskal Herriko beste inon baino urriagoa: %2,90koa 1993an (Iñigo 1994: 53). Baina 1989 eta 1993 urteetakoak bata bestearekin alderatuz gero, +%25,51 hazi da kopuru hori eta, oraingo hone-tan, Nafarroaren (+%44,48) eta Lapur-diren (+%26,55) ondoren hirugarren azaltzen da Araba.

Ez nuke zenbaki eta portzentaiekin inor gogaitu gura, baina honaino aur-keztutakoek pare bat gauza erakusten dute behinik behin:

a. Txarra da euskararen egoera Araban, baina aurrerakada galanta egin da azken hamarkada bietan.

b. Txarra da –berriro diot– euskara-ren egoera Araban, baina ziurren-ziurrenere bere historia osoan sekula izan duenik hoberena da.

Behin honetaraz gero, arabarren eta, azken baten, euskal hiritar guztion

esku dago Arabako euskararen geroa. Nolako hizkuntza politika taxutzen den, nolako bidea urratzen den, halakoa izango da hurrengo uztaroetan bilduko den emaitza.

## 7. Arabako euskara

Euskarak Araban izan duen bilakae-raz jardun ostean, bertan hitz egiten zen euskararen ezaugarriez esan na-hiko nuke zer edo zer<sup>6</sup>. Landuchioren hiztegia argitaratzerakoan, hiztegi horretako hizkera ez zela erabat biz-kaiera esan zuen Mitxelenak (in Lan-duchio 1958). Gaur egun galduta lego-keen euskalki baten ordezkarietat jo eta “hegoaldekoa” izenez bataiatu zuen desagertutako euskalki hori. Bazuen Mitxelenak bere arrazoia: Landuchio-ren hiztegiko euskara Mikoleta bilbota-rrenarekin, 1596ko *Refranes y Sen-tencias*-koarekin, Kapanaga mañaria-rrenarekin eta XVI-XVII. mendeetako Bizkaiko gainontzeko lekukoekin alde-ratuz gero, saihestu egiten da ezauga-ri esanguratsu zenbaitetan.

Baina Mitxelenak bere iritzia plaza-ratu zuenetik ia berrogei urte iragan di-renean, ikuspegi zabalagoa eta osoa-go izateko eta, beraz, gauzak beste era batera ikusteko aukera daukagu. Alde batetik, Landuchioren hiztegi-az gainera, Arabako beste lekuko batzuk ere badauzkagu eskura: Betolatzaren dotrina –oraintsu arte Bizkaikotzat jo izan dena–, Gamizen bertsoak eta oraindik orain aurkitu den itzulpen-zati bat, Garcia de Albeniz araiarrak 1788an egindakoa (Hidalgo 1996). Martin Por-talen poesia gehitu behar zaie hiru horiei. Ez dakigu Portal nondarra zen eta, gorago esan dudan legez, baliteke Lana edo Ameskoako nafarra izana.

6. Luze eta zabal jardun dut honetaz “Arabako Euskara” izenburuarekin laster argitaratzekoa den artikuluan: E. Knör & K. Zuazo (arg.), Arabako Euskararen Lekukoak, Gasteiz, Eusko Jaurilaritza, 1997.

Baina administrazio-mugak alde batera utzi eta bere hizkerari begiratzeko badiogu, nahitaez jarri behar dugu Arabako gainontzekoekin harremanetan.

Bigarrenik, lan handia egin da Arabako toponimia eta osterantzeko hizkuntza hondarkiak batzen eta aztertzen. Ezingo ditut langile guztien izenak banan-banan hemen aipatu, baina Gerardo Lopez de Gereñuren "Toponimia alavesa" eta "Voces alavesas" behintzat nahiko nituzke denen artean nabarmendu.


Euskal dialektologiaren alorrean ere, hirugarrenik, aurrerapen ikusgarriak egin ez den arren, urrats batzuk eman dira behinik behin eta orain berrogei urte baino gehiago dakigu Bizkaian eta Araba ertzeko Deba arroan, Goierrin eta Burundan egiten diren hizkeraz. Nafarroako Lana eta batik bat Ameskoako hizkeraz ere badakigu zertxobait, besterik ez bada ere toponimiak eta bertako beste hizkuntza hondarkiek erakusten duten apurra.

Gauzak horrela, Araba osoko euskara ez zela bat eta bera esan dezakegu lehenik eta behin. Horixe da berta-

ko idazleen lekukotasunek eta toponimiak berak salatzen dutena. Toponimiaz den bezainbatean, eremu argi bi nabari dira: mendebalekoa bata eta ekialdekoa bestea. Legutiano eta Zigoitia lerrotik ezkeraldekoak osatzen du mendebala eta Donemiliaga, Agurain, Iruraitz-Gauna eta Maeztu lerrotik eskuinaldekoak, berriz, ekialdea. Bada bien erdian tarteko eremu bat, noiz mendebalarekin noiz ekialdearekin bat egiten duena eta bere-bereak diren berezitasunak ere badituena. Arratzu-Ubarrundia, Barrundia, Gasteiz, Burgelu, Dulantzi eta Trebiño daude erdialdeko eremu honetan.

Zuzena eta bidezkoa dirudi Arabako idatzizko lekukoak ere hiru eremu horien artean banatzeak: mendebalekoan legoke Betolatza, erdialdekoan Landuchioren hiztegia egiten jardun zuten lankideetako bi –ezberdina eta jatorri ezezaguneko da hirugarrenaren hizkera– eta ekialdekoan Gamiz eta Garcia de Albeniz. Ekialdeko honetan sartu beharko litzateke jatorri ezezaguneko Martin Portal ere.

Ezarri ditudan mugen gaineko ñabarduraren bat edo beste alde batera



Arabako hizkuntza eremuen gutxi gora-beherako mugak

utzita, ez dut uste esandako honetan eztabaida handiegirik izango denik, baina behin hemendik aurrera jo nahi dugunean azaltzen dira gauzak ilunago eta nahasiago. “Euskalkia” ote da, gero, Arabakoa? Auzi hori berez da argitzen eta garbitzen zaila. Hautatu ohi diren irizpideetan egon ohi da gako eta, Arabari dagokionez gainera, are zailagoa da zuzen asmatzea, ez daukagulako bertan egiten zen euskaraz behar adinako argibide-kopurua.

Dauzkagun apurretan oinarrিতා, zenbait ohar behinik behin egin daitezkeela begitantzen zait:

1. Hitz eta aldaera jakin batzuk gora-behera, ez da nabari Araba bertako “bereizgarririk” denik, gainerako euskalkietarik aldendu eta bere nortasuna agerian jartzen duenik.

2. Ostera, bizkaieraren bereizgarritzat jo ohi diren asko eta asko hedatzen ziren antzina Arabara. Landuchioren hiztegia eta, beraz, Araba erdialdeko hizkera –Gasteiz bertakoa ziurrenera– alderagai hartzen badugu, bizkaierarekin kidetasun hauek aurkituko ditugu<sup>7</sup>:

– Hitz hasieran *u-* duten aldaerak (orok. *i-*); cf. *ule* ‘ile’ eta *urun* ‘irin’, *nahiz* eta *irten* eta *iltze* ere agertzen diren. Araba osoko toponimian agertzen da, gainera, (*h*)*uri* ‘hiri’ osagaia.

– [  $\bar{r}$  ] aurrean *e > a* bilakaera erakusten duten aldaerak; cf. *bardin* ‘berdin’, *barri* ‘berri’, *txarri* ‘txerri’. Araba osoko toponimian agertzen da oraingoan ere *barri* osagaia.

– Hitz oina *-a* batez amaitzen denean, *-a + a > -ea* disimilazioa betetzen da mugatzailea eransterakoan; cf. *frutea* ‘fruta’, *personeakin* ‘personarekin’... Araba osoko toponimian betetzen da disimilazio hau ere; cf. *elizea*, *errekea*, *errotea*, *kalzadea*, *landea*, *padurea* / *madurea*... osagaiak dituzten toponimoak.

– *i* bokalerdiak bere ondorengo txistukaria bustitzen du, *z > x* eta *tz > tx* bilakarazi ondoren desagertuz; cf. *axe* ‘haize’, *elexa* ‘eliza’, *gox* ‘goiz’, *kerexa* ‘gerezi’, *nax* ‘naiz’, *nox* ‘noiz’ alde batetik eta *aretx* ‘haritz’, *atx* ‘haitz’, *gatx* ‘gaitz’ bestetik. Araba gehieneko toponimian –ekialdekoan izan ezik– dira nagusi aldaera bustiak dituzten toponimoak; cf. *atx*, *aretx*, *bakotxa* ‘bakoitza’, *elexa* / *eleja*, *lexar* ‘lizar’, *kerexa*.

– *-r-* duten aldaerak (orok. *-l-*); cf. *berar* ‘belar’, *erur* ‘elur’, *irargi* ‘ilargi’. Araba osoan agertzen dira, gainera, *berar* / *bedar* osagaiak dituzten toponimoak.

– *n-* duten aldaerak (orok. *l-*); cf. *narru* ‘larru’, *nasai* ‘lasai’.

– Beste aldaera fonetiko batzuk: *ardao* ‘ardo’, *baltz* ‘beltz’ (Araba osoko toponimian azaltzen dena), *bere* ‘ere’, *etxi* (bizk. zah. bezala) ‘utzi’, *gaztai* ‘gazta’, *guzur* ‘gezur’...

– Sozietiboko *-gaz* morfema. Landuchioren hiztegian, dena dela, *-kin* da ohikoena, baina *-gaz* erabili zuten G. de Albeniz araiarrak eta Gamiz sabandoarrak ere.

7. Arestian esan dudanez, hiztegi hau egiten jardun zutenetako batek beste bien aldean hizkera ezberdina erabili zuen. Haiek biak, eta ez hirugarren hau, izango dira soil-soilik alderagai.

– Ablatiboko *-rean* morfema; cf. *norean* ‘nondik’, *urrutirean* ‘urrutitik’... gaurregun Bizkaian bertan ere, aztarnaren batzuk gora-behera, galduta dagoena.

– Hurbiltze-adlatiboko *-rutz* morfema; cf. *atzerutz* ‘atze aldera’, *barrurutz* ‘barru aldera’... Bizkaitik kanpo, adizlagunetan (*onutz(a)*, *orrutz(a)*, *arutz(a)* tankerakoetan) soil-soilik erabili izan da morfema hau.

– “*edo* + izenordain galdetzailea” egiturako izenordain zehaztugabeak; cf. *edonon*, *edonolan*, *edonorutz*...

– *-gi* duten partizipioak (orok. *-ki*); cf. *ebagi* ‘ebaki’, *eregi* ‘eraiki’, *exegi* ‘esekei’, *iregi* ‘ireki’, *jagi* ‘jeiki’...

– Gaztelaniatik mailegatutako partizipioetan *-ado* > *-adu* bilakaera izana (orok. *-atu*); cf. *akordadu*, *akostunbradu*, *usadu*...

– Gaztelaniatik mailegatutako partizipioetan *-ido* > *-idu* bilakaera izana (orok. *-itu*); cf. *abatidu*, *aborrezidu*, *absolbidu*...

– *baltzitu* ‘belztu’, *otzitu* ‘hoztu’ bezalako partizipioak.

– Aditz-izenak osatzeko *-ten* / *-tzen* orokorrean gainera beste aukera batzuk ere izana: *-etan* (cf. *desfaborezietan* ‘desfaborezitzen’, *digerietan* ‘digeritzen’), *-itan* (cf. *abisaitan* ‘abisatzen’, *aurreraitan* ‘aurreratzen’), *-ketan* (cf. *aginketan* ‘agintzen’, *erreguketan* ‘erregutzen’), *-zaiten* (cf. *artzaiten* ‘hartzen’, *saltzaiten* ‘saltzen’).

– Lexikoari bagagozkio ere gaur egun bizkaieraren bereizgarritzat daukagun asko agertzen dira Landuchioren hiztegian: *ardi* ‘arkakuso’, *barakatz* ‘baratxuri’, *berba* ‘hitz’, *eguzari* ‘jai’,

*gura* ‘nahi’, *legez* ‘bezala’, *okaran* ‘aran’, *ostera* ‘berriro’, *ugazaba* ‘jabe, nagusi’... eta asteko egunen izenak: *martitzen* ‘astearte’, *eguasten* ‘asteazken’, *eguan* ‘ostegun’, *zapatu* ‘larunbat’, *domeka* ‘igande’ eta are Bizkaiko mendebalean soil-soilik erabiltzen den *ilen* ‘astelehen’ ere.

Landuchioren hiztegia hain zuzen ere *hiztegia* denez, morfologiaz edo sintaxiaz eman diezagukeen argibide-kopurua mugatu samarra da, baina Arabako gainontzeko lekukoei begiratu gero, herrialde osoan edo gehien behinik behin, bizkaieraren beste bereizgarri hauek ere ezagunak zirela ikusiko dugu:

– Nor-Nori-Nork adizkietako *eutsi* erroa (orok. *\*-i-*); cf. Gamizen *deust* ‘dit’, *dustazu* ‘didazu’ edota G. de Albenizen *deusat* ‘diot’, *deutsut* ‘dizut’, *deustala* ‘didala’. Arabako ekialdeko lekuko hauek *\*-i-* erroa ere erabili zuten dena dela.

– *egin* erroa (orok. *\*ezan*); cf. Gamizen *euki egizu* ‘eduki ezazu’, *piztu naizu* ‘piz nazazu’ edota Portalen *egin egizu* eta *jan egizu*.

– Aditzen pluralgilea osatzeko *-z* aukera; cf. G. de Albenizen *dagoz* ‘daude’ edota Portalen *diguz* ‘dizkigu’.

– *bi* zenbatzailea izenaren eskuinetara agertzen da Gamizen adibide bietan: *arriba bai*, *matel bietan*.

Argi dago, beraz, luzea dela Landuchioren hiztegioko hizkerak bizkaiera-ekin daukan kidetasun-zerrenda eta are luzeago litzateke baldin eta Betolatzaren izkribua hartuko bagenu alderagai. Betolatza idazlea Betolatza herriko semea zen, Gasteiztik gertukoa horrenbestez, eta hala ere bere hizkera



ia erabat berdindu daiteke Bizkaiko lekuko zaharrenekin. Dazkan arkaismoak alde batera utzita, gaur egun Arratia-Otxandio aldean egiten denarekin dauka antz handia.

Arabako ekialdeko lekukoak, jakina, gehiago saihesten dira bizkaieratik, Gamiz eta Portal batez ere. Baina ezin dugu ahaztu, sortzez sabandoarra zen arren, Iruñean eman zituela bere bizitzako urte asko Gamizek eta, Portalez den bezainbatean, ez dakigula ez nondarra zen ez eta non bizi izan zen ere. Kontuan izan beharko litzateke, gainera, Iruñeko lehiaketa baterako egin zuela bere poesia eta baliteke epaimahaikoak hangoak izango zirela jakinda, bere hizkera zertxobait aldatu eta epaimahaikoek ulertzeko modura egokitu izana.

3. Galde liteke, eta galdetu ere egin behar da, ea Arabako lekukoek hizkera bizkaieratik ezertan aldentzen ote den. Landuchioren hiztegia oinarritzat hartuta, honako hauek lirateke ezberdintasunak:

– Bere horretan gorde da *-ain* dip-tongoa (bizk. *-ain* > *-an*); cf. *ezpain*, *labain*, *zain*...

– Bere horretan gorde da *-uin* dip-tongoa (bizk. *-uin* > *-un*); cf. *lurruin*, *muin*...

– Badira bizkaieran ez bezalako aldaera batzuk: *ezurra* (bizk. *azurra*), *unide* (bizk. *inude*), *soro* (bizk. *solo*)...

– *ark*, *artan* erakusleak (bizk. *ak* / *arek*, *atan* / *aretan*).

– *-zio* amaiera (bizk. *-ziño* tanke-rakoak); cf. *akusazio*, *alterazio*...

– *edun* aditzaren erroa *-u-* izana (bizk. *-o-*); cf. *dut*, *duzu*...

Laburra da ezberdintasunen zerrenda. Laburra eta, gainera, erabateko baliorik ez daukana. Izan ere, Arabako lekukotasunak bere osotasunean hartzen baditugu honako kontradibide hauek aurkituko ditugu:

– *-ain* > *-an* eta *-uin* > *-un* gertatu den aldaerak erabili zituen Gamizek (cf. *espanac*, *bigundu*, *mun*) eta *gan* ‘gain’ agertzen da Arabako mendebaleko toponimian.

– *solo* agertzen da Araba gehieneko toponimian.

– *atan* ‘hartan’ erakuslea, *-ziño* amaiera eta *edun* aditzean *-o-* erroa erabili zituen Betolatzak. G. de Albenizek berak ere behin baino gehiagotan erabili zuen *dot* ‘dut’ adizkia.

4. Honaino esandakoa laburbiltzeko eta betiere gaur egun eskuartean dauzkagun lanabesetan oinarrituta, ausartegia iruditzen zait Araban euskalki berezia zela aldarrikatzea orain arte gutariko zenbaitek egin izan dugun bezala. Aitzitik, bizkaieraren tankerak bereko hizkera egiten zela ematen du, nahiz eta ekialdean, Nafarroatik eta Gipuzkoako Goierritik gertuan, bizkaierarekiko kidetasunak arindu egiten diren. Hain zuzen, badirudi Arabako ekialdearekiko lotura egiten duela gaur egun Nafarroako Burundan egiten den hizkerak eta baita, beharbada, aspaldi Lana eta Ameskoa ibarretan egiten zenak ere.

Landuchioren hiztegia Bizkai barrualdeko lekukoekin alderatu izanak bultzatu zuen, nonbait, Mitxelena Arabakoa euskalki berezizat jotzera, baina Mikoleta, *Refranes y Sentencias*... eta Bizkaiko gainerako lekukoekin barik, Deba arroko hizkerekin alderatzea litzateke zuzenagoa, hau da, Elgoibar, Bergara, Antzuola, Oñati

inguruetako hizkerekin. Eta hauekin alderatzera, ez litzateke hain berezi agertuko Landuchiorena. Izan ere, honen hiztegiko *igeri egin, ile, iltze, irin, izen; berri, gerri; gain, errain, etzin* ‘etzan’, *gutxi, biurtu; gaude, daude* adizkiak (*gare, dare* itxurapean); sozietiboko *-kin* morfema, *-ki* atzizkia *gaizki* adberbioan... ez dira inola ere arrotzak aipatutako alderdian.

Behin honetaraz gero, eta Bizkaian, Gipuzkoako Deba arroan, Araba gehienean eta baita, beharbada, Burgosen eta Errioxan ere tankera bereko hizkera egin zela erakusten ahalegindu on-

doren, hizkera horren izenaz jardun nahiko nuke. Ez zait iruditzen orain arteko *bizkaiera* izena Bizkaian zein Bizkaitik kanpo hitz egin den –eta hitz egiten den– hori izendatzeko egokiena denik. Gauza jakina da –eta hala gertatzen da gurean ere– hizkuntza-mugek ez daukatela administraziokoekin lotura zuzenik eta ez dirudi, beraz, administrazio izenak hizkuntzarenak ere izendatzeko nahitaez eta ezinbestean erabili behar liratekeenik. *Bizkaie-aren* ordeztu *mendebalekoa*-edo erabiltzea litzateke egokiagoa, bai hizkuntzarekiko zuzentasunez eta bai Bizkaitik kanpoko hitzunikiko begirunez.

### Aipatutako bibliografia

- Agirre, J. M. (1994): “Euskararen bilakaera 1981-1991 hamarkadan”, *BAT-Soziolinguistika Aldizkaria*, 13-14 zb., 13-26.
- Apraiz, O. (1976): *El vascuence en Vitoria y Alava en la última centuria (1850-1950)*, Excma. Diputación Foral de Alava, Gasteiz.
- Barandiaran, J. M. (1926): “El euskera en Alava a fines del siglo XVIII”, *RIEV*, 17, 464-467 [Berrarg. LGEV, Bilbo, 1971].
- Bonaparte, L-L. (1863): *Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l’euscará*, Londres.
- Broca, P. (1874-75): *Sur l’origine et la répartition de la langue basque*, Ernest Leroux, Paris.
- Eusko Jaurlaritza. (1989): *Soziolinguistikazko mapa*, Gasteiz.
- , 1995: *Euskararen jarraipena*, Gasteiz.
- Garate, J. (1972): “El anillo escolar en la proscripción del euskera”, *BAP*, 28, 174.
- Hidalgo, V. (1996): “1778ko eskuizkribu bat Albeniz-Arabako euskaran?”, *FLV*, 73. zb., 483-491.
- Humboldt, W. F. von. (1975): *Los vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801*, Auñamendi, Donostia.
- Intxausti, J. (1994): *Euskara Araban / El euskera en Alava*, Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, Gasteiz.
- Iñigo, J. J. (1994): “Euskararen kale erabilpena Euskal Herrian: EKBren neurketaren emaitzak”, *BAT-Soziolinguistika Aldizkaria*, 13-14, 51-76.
- Kardaberaz, A. (1761): *Eusqueraren berri onac*. [L. Lopetegi, arg.], *Obras Completas de Agustín de Kardaberaz* (I), LGEV, Bilbo, 1973.
- Knörr, E. (1994): “La lengua vasca y las Juntas Generales de Alava”, *Landazuri*, 3. zb.
- Landazuri, J. J. (1926) [1798]: *Historia civil de la M.N. y M.L. Provincia de Alava*, Gasteiz.
- Landuchio, N. (1562): *Dictionarium Linguae Cantabricae* [K. Mitxelena & M. Agud, arg.], *ASJUren gehigarriak*, 3. zb., Gipuzkoako Foru Aldundia, 1958.
- Lopez de Gereñu, G. (1956-1980): “Toponimia alavesa”, *Anuario Eusko-Folklore* [Berrarg. Euskaltzaindia, *Onomasticon Vasconiae-5*, Bilbo, 1989].
- , (1958-1973-1982): “Voces alavesas”, *Euskera*, 3, 173-367; 18, 119-149 eta 27:1, 239-248.

- Mitxelena, K. (1964): *Textos arcaicos vascos*, Minotauro, Madril [Berrarg. *ASJUren gehigarriak*, 11. zb., Gipuzkoako Foru Aldundia, 1990].
- Oihartzabal, B. (1992a): "Euskararen mugez egin lehen mapak (1806-1807)", *Iker-6*, 349-366, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , (1992b): "Lehenbiziko inkesta geo-linguistikoak Euskal Herrian frantses lehen inperioaren denboran: Ipar aldean bildu dokumentuak", *Iker-7*, 285-298, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , (1994): "Euskararen mugak hego-aldean 1807.ean: Eugène Coquebert de Montbret-en artxiboetan gelditu dokumentuak", *Euskal Dialektologiako Kongresua, ASJUren gehigarriak*, 28. zb., Gipuzkoako Foru Aldundia, 241-253.
- Santoyo, J. C. (1972): *Viajeros por Alava. Siglos XV a XVIII*, Biblioteca Alavesa "Luis de Ajuria", Gasteiz.
- Sasia, J. M. (1976): "En torno al euskera alavés", *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, 27, 105. zb., 72-79; 106. zb., 131-137 eta 107. zb., 174-184.
- , (1981): "El viejo euskera alavés", *Odon Apraizi omenaldia*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 293-333.
- Velasco, L. de. (1879): *Los euskaros en Alava, Vizcaya y Guipúzcoa*, Bartzelona [Berrarg. Editorial Amigos del Libro Vasco, Bilbo, 1983].
- Zuazo, K. (1991): "Euskararen egoera Bonaparteren garaian", *Jakin*, 66, 11-43.